

# Gure etxea handago

Amets Arzallus Antia



Amets Arzallusek eta Ibrahima Baldek “Miñan” liburua idatzi dute. Ibrahimak Ginean izandako haurtzaroa eta Europara etortzeko egindako bidaia gogorra azaltzen du.

Zer ote datorkio orain burura, “etxea” esanda?

## **Doinua: Gu gazte ginadela** **Zortziko txikia**

- 1 Etxola borobil bat zuhaitzen **artean** erdi-erdian sua ta bi ahuntz **atean** egun batean denei agur **esatean** etxea sartu nuen poltsiko **batean**.
- 2 Geroztik ibili naiz haizearen **esku** orain zure etxean badut non **babestu** ez da gurea bezain tiki eta **estu** baina limoiondorik atarian **eztu**.
- 3 Etxea esan eta zer dator **burura?** Lastozko teilatuan hiru **\*itaxura** bide luzean oinez ekartzen zen **ura** nik maitasuna edan nuen putzu **hura**.
- 4 Eta **\*pularra** baitut hizkuntza **maitea** gertatzen baldin bada **kasualitatea** gure hitzez norbaitek “kaixo” **esatea** iruditzen zait gure etxeko **atea**.
- 5 Etxeminez sentitzen badut **negargura** eskua poltsikora daramat **\*ardura** hantxe dauzkat lastoa, buztina ta **zura** berriz eraiki eta sartzen naiz **barrura**.
- 6 Hara nik zenbat dudan katu **kosmikotik** edozer eraikiko nuke **poltsikotik** urruti egon arren sartzen naiz **gogotik** mundua ikusteko etxeko **leihotik**.

\*1 Itaxura: itogin

\*2 Pularra: Mendebaldeko Afrikako hizkuntza

\*3 Ardura: etengabe, sarri

